

**BALENDIN ENBEITA,
BERTSOLARI-BELAUNALDIEN
LOTURA**

Sarrera

Balendin ez zen Enbeitatarren familiako bertsolarietan lehen kate maila. Atzerantz joz gero, sakon zeuden sustraiak. Aitonarenganaino, "Txotxojeuri"ganaino, luzatzen ziren, gutxienez. Balendin erdi-erdian ageri zaigu, eta bera dugu aurrekoen eta ondorengoen arteko lotura. Egiteko horren kontzientzia bi-zi-bizi zuela zirudien. Hogeigarren mendearen hasieran, 1906ko maiatzaren 20an, jaio zen Usparitxa-Jauregi baserrian. Egun gogoangarria: Erromak Balendin Berriotxoak dohatsu izendaturiko eguna. Horregatik "Balendin" izena jarri zioten. Izan ere, Elorrioko Balendin Berriotxoak gogoko zuen bertsoa eta Tonkinetik amari idatziriko gutunetan bertsoak eta esaldi errimatuak sartzeko ohitura zuen. Xenpelarrek ere, haren bertsozaletasuna aintzat harturik edo, bertso ospetsuak idatzi zituen Elorrioko martiriaren omenez.

Nik uste dut, Balendin Enbeitak bertsolaritza kultura-altxor baliotsutzat jaso zuela aurrekoengandik eta hura, aberasturik, ondorengoengana helarazteko ardura izan zuela beti.

Sozial eta politika aldetik garai gatazkatsua izan zen hari egokitu zitzaiona: bi mundu-gerrak eta batez ere gerra zibila eta honen ondorengo diktadura gogor eta luzea. Horregatik, Balendinen bertsolari-jarduera, haren belaunaldiko idazle eta

euskaltzale askoren jarduera bezala, bitan zatitua ageri zaigu: gerra aurrekoa eta gerra ostekoa; hau da, gerrak eta diktadurak onenean ere eten egin zituen euskal kulturaren adierazpenak eta txarrenean, guztiz suntsitu. Gerra osteko umeok beldurra sumatzen genuen adinekoen begietan, keinuetan... Gerra pasatu zen gure kulturaren baratzetik eta hark zapaldu zuen ernamuinetan zen guztia. Nola edo hala jaiki beharra zegoen amets gaiztoa zirudien, baina errealitate gaiztoagoa zen hartatik. Berriro hasi. Giro hura, lerro gutxitan, nahiko ondo adierazi genuela esango nuke Jon Lopategiren biografian. Hona hango ataltxo bat:

"Gerra osteko urteetan euskal usaineko guztia debekupEAN zan. Oso gitxi ziran euskal letren edo kulturaren plazara urte-teko adorea eukENak. Onenean be, ezkutuan ziharduen bene-tako euskaltzale eta abertzaleak. Bai, errauspean egoan gorde-rik txingar gorria, abagunea heltzean, guztia berotuko eban su-gar handi bihurtzeko.

Bizkaian bertsoa hilaginean ez baegoan, harrokeria handi barik bai, behintzat. Ozta-ozta bizi zan; guztia beharrean. Gar-rai batekoa, joandakoa zirudian. Sua biztuko bazan, errauspe-an zirika eta zirika jardun beharra egoan. Zorionez, garairik txarrenean, bertsolaritzari bizirik eutsiriko profeta agurgarri bat-zuk izan ditugu; guztion gogotan dagozan euskaldun jator eta goragarriak. Han-hor-hemen edo lekuan-lekuan baziran bana-ka batzuk, bertsotan ibilitakoak; gar horri barnean oraindik bi-zirik eusten eutsienak... Baina ez eukEN oihartzunik; are gitxia-go, plazaratzeko aukerarik. Bizkaian ilunpetako garaian, dikta-durapeko ekaitzaldian, arbasoengandik testigua jaso eta ondorengoengana iraganarazo dabenak Enbeitatarrak izan di-rala esan daikegu. Kepa Enbeita "Urretxindorra" k ospe handia itzi eban. Harek, bere garaian, bertsolaritza bere ohorezko le-kuan ezartzen jakin eban. Gizartean egosi ohi ziran joera, go-go eta ekintza artean bertsoa ate nagusitik sartzea lortu eban"¹.

¹ Luis Barajazarra. *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* (43. or.)



Kepa Enbeitaz esandakoa bera esan behar dugu Balendin haren semeaz ere. Garai zailetan altxor hori gorde eta apurka-apurka landuz, familiara lehenengo eta auzora gero zabaltzeko kemena izan zuen. Egoera hartan ia ezinbestekoa zen erakunderen baten laguntza, Madrileko gobernuaren susmoak haztertu eta honi guztioni geriza emateko. Hori Euskaltzaindia izan zen; baina, egia esan, Euskaltzaindiaren itzalpean betiere, bertsolaritza Euskal Herrian eta batez ere Bizkaian suspertzea eta gidatzea, besteak beste, Alfontso Irigoienek gain izan zen. Honen hainbat ate jo behar izan zituen eta Balendin Enbeitarengan eta Enbeitatarrengan aurkitu zuen oinarririk sendoena bertsolaritza Bizkaian eraikitzeko.

Bertsogintzako bi eredu

Balendinek ume-umetatik euskararekin batera bertso-giroa sumatu zuen etxean. Zoriak bertsolari izateko bidean jarri zue-

la zirudien; ingurumari osoa horretara zuen. Gauzak horrela, ia eginbehartzat edo bete beharreko misiotzat izango zuen bera ere bertsolari izatea. Dena dela, goian adierazitako arrazoiengatik, ez zitzaion erraz gertatuko...

Etxean bertsolaritzaren eredu bakarra ez zuen jaso. Are gehiago, argi eta garbi bi eredu bata bestearen aurkakoak jaso zituela esango nuke: aitonarena batetik eta aitarena bestetik. Gureganaino hala iritsi dira, behintzat: Balendinen aitona, "Txotxojeuri" (Joan Antonio Enbeita), herri-mailako bertsolari umoretsu eta jatortzat agertu digute; Balendinen aita, "Urretxindorra" (Kepa Enbeita), berriz, goi-mailako bertsolari fin, landu eta hikaintzat, abertzaleen arteko jai, hitzaldi eta mitinen osagarri bertsoaren arte herrikoi, entzungarria jartzen zuena. Santi Onaindiak idatzi zuen Kepa Enbeitaren biografia eta, jakina, aitaren, Joan Antonio Enbeitaren, hainbat zertzelada ere ematen dizkigu. Ondorengo pasadizo txiki honetan "Txotxojeuri" k tabernetara zuen joera antzematen da. Hona hitzez hitz:

"Enbeitatarak, gurasoak eta zazpi neba-arreba guztiz, sololandetan bear eginik bizita be, baeben beste ogibide bat oso etxeakoa: otzara edo saskigintza. Otzarak saltzera, berriz, Somorrostro, Gueñes eta Truzios aldera joan oi ziran; sarritan ingurukoen otzara pilloak burdian artuta be bai. Kepa be ifioiz joan zan, lenengo aitagaz eta gero bakarrik; eta ona zegaz konturatu zan: idiak trabena guztien aurrekaldean egonaldi-txoa egin bear izaten ebela"².

Kepa Enbeita "Urretxindorra" k bestelako bidea hartu zuen, batez ere Esteban Urkiaga "Lauaxeta" rekin eta beste abertzale batzuekin harremanetan jarri zenez gero. Hala adierazi genuen goian aipaturiko beste muxikarraren biografian:

"Jon Arrospide medikuak zerikusi handia izan behar eban "Urretxindorra" ren ekintzan. Harek, jakintza handiko eta hartu-emonetako gizona izanik, bideak asko erraztu eutsazan Kepa

² Aita Onaindia. *Enbeita Oleskaria* (14. or.)



KULTURA

Enbeitari. Aholkulari eta bitarteko izan eban beti. Euskera idatziaren hasi-masiak eta oinarritzko lehenengo eskolak be harrengandik jaso zituan, holan, bertsoa eta bertsolaritza goigoian ezartea lortuz. Egia esan, ahozko artistak sagardotegieta-ko itxitura arruntetik urtetea on zan bertsolaritzarentzat. Jatorra izango da giro hori, baina haize garbira azaltzea, noizbehinka betiko ohiturak aldatzea ondo dator. Irudia zaindu beharra dago, eta mozkor-aireak ez deutsa onik egiten bertsolariaren irudiari. Gerora, Iñaki Eizmendi "Basarri"k bereganatuko eban ohore hori, haina nori berea zor bajako, ez dago zalantzarik Urretxindorra dala horretan aitzindaria³.

Aitonak eta aitak markaturiko bi bertsogintza-ereduen bidegurutzean, Balendinek argi dago aitarenetik jo zuena. Dena dela, 12 urte zituela bertsotan hasi zenean, aitonarekin jarduten omen zuen Ariatzako tabernan. Lehenengo irteerak ere bertsotan egitera, aitonarekin egin zituen. Aitarekin lotsatu egiten zela diosku berak.

Bertsolari-jarduera

Hamazortzi urte inguru zituela hasi zen aitarekin Gabonetan eta halako jaieran kantatzen. Hogeita hiru urte zituen Mungian antolatu zen sariketa irabazi zuenean. Ez da zehazten nolako sariketa zen hau, ezta gainerakoak nortzuk ziren ere. Santi Onaindiak idatzia da Balendin Enbeitaren *Nere Apurra* liburuaren hitzaurrea eta Balendinek berak laburbildurik idatzirik zenbait argibide biografiko datoz hor. Lehen sari horrek bertsotarako gogo biziagoa sortu ziola dio eta hurrengo urtean Getxon egin zen beste sariketa batean ere lehen saria berarentzat izan zela. Aurrerantzean plaza askotan kantatu zuen bere aitarekin, Bizkaian batez ere.

Hogeita sei urterekin Iparraldera joan zen Basarri lagun zuela, Bizkaiko *Euzko Gaztediak* antolaturiko bira batean.

³ Luis Baraiazarra. *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* (45. or.)



Donibane Garazi, Atharratze, Kanbo eta Donibane Lohitzunen hiru bat egun egin zituzten.

1933an, Elizondora joan zen bertsotan egitera bere aitarekin. Bilboko Arriaga Kafetegian izan zuten saioa ere ez du ahazteko. "Ementxe egin genduan garai artako bertso-saioarik ederrena" dio berak. Garai horretan, Francoren altxamendu faxista arte, herriz herri ibili zen bere aita, Dimako Uriarte eta bere anaia Sabin lagun zituela. Gerra sortu zenean, guztiz isildu zen, 1958an Bizkaiko txapelketan berriro agertzeko. Hainbeste denboran isilik egonik, kantatzeko erraztasuna ere galdu zuela diosku. Ahaleginez eta apurka-apurka lehengo etorria lortuko zuen. 1958an eta 1959an, berak jantziko du Bizkaiko bertsolarien txapela Bilboko Arenalean milaka eta milaka entzuleren aurrean. Bigarren horretan Jon Azpillaga gaztearekin lehia bi-

zian. Bizkaiko bertsozaleak poz-pezik etxeratu omen ziren, bertsolarien artean izar berri bat piztu zela-eta. Jon Azpillaga zen izar berri hori, Balendin lehendik ere ezaguna eta goian zegoena baitzen. Bizkaiko geroko txapelketetan gazteagoak gailenduko ziren: Mugartegi, Azpillaga eta Lopategi. Honek Bizkaiko lau txapel eta Euskal Herriko bat lortuko zituen. Balendin bera beti ondo ibili arren, ez zen bi lehenengoen artean ageri 1960ko Bizkaiko txapelketatik aurrera; gazteak indartsu zetozen. Dena dela, haren inguruko batzuk onenen artean zeuden: 1961ean, Jon Azpillagak txapela jantzi zuenean, Balendinen iloba Deunoro Sardui izan zen txapeldunorde. Urte horretan eta hurrengoan nahiko indartsu ageri ziren Ireneo Ajuria eta Abel Enbeita ere; bertsolaritzaren garai berriagoetan, 1980ko hamarkadan, Jon Enbeita goi-goian ageri zen Euskal Herriko txapelketetako finaletan: 1980an txapeldunorde izan zen Xabier Amurizarekin buruz buruzkoan txapela jokatu. Geroago ere goi-goian ikusten genuen. Batez ere txapelketarako ondo prestatzen zen bertsolaria genuen. 1990eko eta 1992ko Araba-Bizkaiko txapelketetan berak jantzi zuen txapela.

Balendini zor zaio batez ere "Garriko" Bertso-eskolaren sorrera. Bertsolariak, berezkoa behar badu ere, egin ere egin dela erakutsi ziguten Balendin Enbeitak eta "Garriko" eskolakoek. Ez da gutxi, garai hartako pentsaera itxiari gaina harturik, bertsolaritzan, beste hainbat arlotan bezala, eginez, hainbat gauza landuz trebatzen dela sinestea. Hau da, bat-bateko bertsogintzak edo arteak ahalegin handia eta ikasketa luzea eskatzen dituela. Berrogei urte geroago han eta hemen bertso-eskoletatik sortu diren bertsolari bikain mordoak egiaztatu du "Garriko" eskolakoak zuzen zebiltzala. Pedro Mari Aldana "Garriko" Bertso-eskolako idazkariak hau dio eskola honi buruz:

"Ariatzako "GARRIKO" osotzen gendunon lanak zer ondorio ekarri dauan? Ezta oso erraza galdera orri erantzutea. Gauzak honela, Balendin Enbeitak, gure taldeko zaharrenak, sarri as-



kotan esaten ebanez, Euskadiko lehenengo "bertso eskola" eizan, guk sortutakoa. Behar bada, etzan iraunkorra izango, baina bai emankorra, nere ustez, behintzat. Iraun eban egunetan, zazpi hilabete, egin zan lana oso sakona, serioa eta interes betekoa izan zan"¹.

¹ "Garriko" Bertso Eskola 1959-1960 (11. or.)

Jon Lopategik ere harrutik eta berta-bertatik ezagutu zuen eskola hau. Hona zer dioskun:

"Pedro Ajuriak, Ireneo Ajuriaren aitak, taberna bat eukan eta bertsozale asko batzen ziran han. Bada, Deunorok eta biok saio ha egin eta egun batzuetara, Pedro Ajuria hau etorri jakun Deunorori eta bioi; ez dakit besterik bazan han... 1958an Bizkaiko txapelketak izan ziran eta esan euskun: *zuek zergaitik ez zarie batzen zapatuetan han gure tabernan? Zergaitik ez zarie prestatzen burrengo urtean txapelketara agertzeko?* On-do hartu genduan haren esana. Guztioi be ondo etorriko jakun. Balentin Enbeita be pozarren etorriko zala uste izanik, alkar harturik Balentini deitzea erabagi genduan. Esan eta egin: Balentin eta Deunoro, Iturri eta ni hasi ginan. Gerotxuago batuko jakuzan, Jon Enbeita, orduan oraindino mutikotxua zana eta Ireneo, hamalau urtekoa edo"⁵.

Jon Lopategiren biografian beste hau ere idatzi genuen "Garriko" Bertso-eskolari eta Balentin Enbeitari gagozkiola:

"Edozelan be, garrantzitsua eta erabagigarria izan zan Jonentzat, beste gazteentzat legez, ikastaro gartsu eta luze hori. Orduan ezagutu zituan bere ahalmenak eta haita bere oinarriak finkatu be. Eta, hain izaera eta joera ezbardineko lagunez osoturiko taldea izatean, bertsolaritzan zer emon eikeanaren kontzientzia hartzen hasi zan.

Eta esker oneko sentimendu bategaz, Balentin maisu handiaren jarrera aberatsa gelditu jakon betiko gomutan. Gazteen deiari gogoz erantzun, euren mailara jaisten jakin, Pedro Mari Aldana idazkari gaztearen aginduetara, ariketa guztietan parte hartu eta gazteak hobekuntzarantz sakatuaz, haren lorpenak txalotzen itzela iruditu jakon Joni, umetatik miresten eban aitzindari eta txapeldunaren emonkortasuna"⁶.

⁵ Luis Baraiazarra. *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* (104. or.)

⁶ *Ibid.* (117, 118 orr.)



Gaiak eta estiloa

Gaiei dagokienez, bertsolariak gizartearen eta herriaren zerbitzura agertu ohi dira. Beren barrukoak baino gehiago, eguneroko bizitzan eta gizartean egosten diren arazoak, kezak, ametsak... erabiltzen dituzte. Haiek eragiten dituzten pentsamendu eta sentimenduak. Bat-bateko saioetan, gainera, gaiak beste norbaitek emanak izan ohi dira gehienetan; gai-jartzaileak emanak. Bertso jarrietan ikusten da, batez ere, zeintzuk diren gairik erabilienak, zeintzuk diren bakoitzaren joerak. Santi Onaindiak *Nere Apurra* liburuaren hitzaurrean hauek aipatzen ditu:

“Baserriko bizitza, senar-emazteen maitasuna eta goraberak, neska-mutillak, erria, euskera, fedea...”.

Gorka Aulestiak gaztelaniaz idatzirik dagoen *Bertsolarismo* liburuan hau dio hitzez hitz:

“Entre sus **temas** favoritos destacan la familia, el trabajo, la paz, el vascuence, la independencia de Euskadi y Dios. A veces parece un predicador que habla sobre la necesidad de Dios. Otras veces condena la falta de unión de los vascos”.

Estiloari dagokionez, gogoko du arrazoi onak ematea; bertsotan erabiltzen dituen hainbat ideia sarri pentsatuak direla dirudi; hau da, Balendin, bizitzako hainbat gai eta arazori buruz bakarrean gogoeta egiten ohitua da. Burutik askotan pasatuak zituen pentsamenduak adierazten ditu bertsotan. Baserritar legez, bere filosofia du eta hori guztia bertsotan agertu nahia nabari zaio. Horretarako, puntu motzekoetako bertsotara baino maizago jotzen du puntu luzekoetara. Zortziko eta hamarreko handia ditu ahapaldi motarik erabilienak. Ospe handiko uneetan, bakarka ari zenean, batez ere agurretan, ahapaldi oso luzeak erabiltzen zituen. Bederatzi puntukoak eta luzeagoak. Jorera hori bere aitarengandik jasoko zuen, baita doinuak ere, hark halako uneetan kantatu ohi baitzuen batez ere abertzaleen bilera eta jaietan. Ahapaldi luzeei buruz eztabaida bat baino gehiago sortu da azken urteetan, batez ere txapelketetan bakarkako lanetan kantatu ohi diren ahapaldi luzeak direla-eta. *Karmel* aldizkarian ere behin horretaz gogoeta eginak gara. Hona hemen hango ataltxo bat:

“Ahapaldi luzeakitsu-itsuan mirestetik haiei ia debekua jarzera igaro dira batzuk. Ni neu ez nago horretara. Historiaren harian, bertsolarien lehen albisteak ditugunetik dakigu, Gipuzkoako bertsolari hobereenen artean bederatzi puntukoa usu erabiltzen zela. Hala diosku Iztuetak Fernando Amezketarraren garaia kontatzen digunean. Geroago Xenpelarrek sorturiko ahapaldi mota desberdinak ekarpen handia izan dira bertsolaritzan. Kepa Enbeita “Urretxindorra”k maiz erabiltzen zituen ahapaldi luzeak, gerra aurreko mitinetan eta gainerako saioetan. Gero, 1980ko eta ondorengo txapelketetan Amurizak ikaragarritzko astindua eman zion bertsolaritzari ia alde guztietatik. Estilo berri bat ekarri zuen, baina ahapaldi eta doinuetan eragin zuen, agian, berrikuntzarik handiena. Egia esan, ahapal-



di eta doinu berriak sortuz batera, erdi ahaztuak ziren doinu eta neurri zaharrak berreskuratu eta plazaratu zituen. Harrezkero, Amurizak hasitako abiatan aurrera doa bertsolaritza eta ahapaldi luze eta doinu berrietarako joera txapelketetan sumatzen da batez ere⁷.

Teknika aldetik, batez ere bere aitarengandik harturikoa nabari zaiola esango nuke. Neurria egoki darabil; hor nekez egin ohi du akatsik; ez luzeegirik eta ez laburregirik. Errimak Gipuzkoako eskolakoak baino pobreagoak. Bertsozaleen artean hainbat iritzi izan dira eta Euskal Herriko alde guztietan ere ez

⁷ *Karmel-1994-1*; 3-19

da tradizio eta joera bera izan. Iparraldekoak eta Bizkaikoak ez dira izan horretan Gipuzkoakoak bezain zorrotzak. Basarrik behin baino gehiagotan agertu zituen bere iritziak; errima aberatsaren morrontzatik pixka bat askatzearen aldeko agertzen zen argi eta garbi. Zama astunegia zela uste zuen eta bertsolaria asko mugatzen zuela gaiak eta edukiak lantzean. Honetaz ere neure gogoetatxo egina naiz *Karmel* aldizkarian. Honela nioen:

“Bizkai aldean, kopla zaharretan, errima aberats samarrak agertzen dira. Izan ere, Bizkaian testulariengandik hasita, errima aberatsak egitea hitzaren jolasean trebetasun seinaleztat hartua izan da. Hala ere bertsoan, Urretxindorra eta Balendin Enbeitaren lehen garaikoak, behintzat, ez dira errima aldetik on-onak. Hauek ere, olerkarien eragina edo ukitua zuten eta, Urretxindorraren kasuan batez ere, mitinetan eta une handietan kantatu beharra izanik, errima eta horrelakoei baino edukiri eta poetikotasunari gehiago begiratzen zieten. Gure gaurko gusturako, beraz, errimaz motz dira eta belarrirako ez hain gozo”⁸.

Gizona

Baserriko semea, tradizioko familia batean sortua. Etxeko elkartasuna, euskara, aberria, kristau-erlijioa ondasun baliotsu-tzat zituen gizarte girokoa. Hala ere, bertsoen kulturaz bezala, gainerakoetan ere, Balendin arbasoengandik jasorikoa ondo-rengoengana helarazteko ardura izan zuena genuen. Ez zen lehenean eta bere baitan bildurik egotekoa, gazteengana irekirik egotekoa baizik. Gazteei eta joera berriei asko begiratzen zien Balendin Enbeitak. Haiengan gauza onak ikusten saiatzen zen. Jakina, etxean bertan eta iloben artean zituen etorkizunaren zantzua erakusten ziotenak eta horiei bultzaka eta horiei lagunduz eraiki nahi izan zuen geroa, lehena ahaztu gabe. Nik neuk ez nuen hura ezagutu hur-hurreko harremanetatik. Beste

⁸ *Karmel*-1994-2,81-86

batzuen bidez iritsi zaizkit haren izaerari buruzko zenbait zertzelada. Jon Lopategiren biografia bion artean landu genuenean, bide batez beste batzuen izaera eta zertzeladak ere agertzen ziren. Horrela jakin nuen Balendin, bertsolari ez eze, baserriko lanetan eta artisautzan guztiz trebea zela. Hona hemen biografia hartatik aldaturiko beste ataltxo bat:

"Balentin *Hormetzeko*, Balentin Enbeita, ezagutzen ez dauanik ez leuke izan behar Euskal Herrian, euskaldunen artean behintzat. Bertsolari modura hartuta, ezin neinke esanda edo idatzita ez dagoan ezer argitu. Baina nire auzo modura, ume aroan zelan ikusten neban adierazo barik be ezin neinteke geratu, Zaballalden genduzan pertsonaia berezien barri emoten dihardudan ezker. Arotz, hargin nahiz elektrizista, edozertarako eukan esku ona Balentinek, edozein lanbidetan zan auzotegian maisu. Lehenen ikusi nituan txondorrak be Balentinenak izan ziren, gure Aldauritik hur "beresijje" deitzen eutsen baso bat solo bihurtu ebanean. Erlauntzetatik ezta ateraten, gari jo-teetan makinista eta mekaniko, txakolina edo sagardoa egiten, baserri munduko lan mota guztietan genduan Balentin egokitasun eta barritasunen aitzindari.

Gogoan dot, gaur balitz legez, gure *Aldauri* zaharrari zurezko balkoi barri bat egin eta azken igurtziak amaitzean zelako jagitasunez begiratu eban alderdi guztietara, bertso bat jaurtizera lihoaken eran. Baita, *Hormetze* atzean beretzat eginiko gurdi barri lirain eta dotore bati azken ikutua egin ostean zutundu eta aidera jaurti eban erronkea be: -*Ezta honen moduko gurdirik Bizkaijjen eta Probintzijjen.*

Urretxindorren lehen semea, *Uspartxa*-ko *Jauregi*-n jaioa zan Balentin. *Hormetze*-ra ezkondu zan Klara etxandere maratzarekin. Gerra ostean etxe barri bat eraiki eban *Hormetze* zaharrari eutsola. Ate zabal izan genduan beti Enbeitatarren etxea, esku eta bihotz zabal Balendinen emaztea, nagusientzat nahiz umeentzat. Herriko emakume abertzaleen buru legez, erregalu bat egin eutsan nire amari ni jaio nintzanean, *EUZKADI*



BALENDIN ENBEITA

NERE APURRA

egunkariaren ale zahar batean behin irakurri nebanez. Senar-
ren ibilerei oniritzia eta laguntasuna beti eskeiniz, bertsolaria-
ren halabeharrezko hutsuneei etxean, solon nahiz edozertan,
zarata handirik atara barik, zehaztasunean erantzuten eutsena"⁹

Hainbat bertso

Julen Urkizak eginiko EUSKAL BERTSO ETA OLERRIEN BIBLIOGRA-
FIA liburuan Balendinen 224 izenburu agertzen dira 39 aldizka-
ri eta egunkaritan. *Oleri* eta *Karmel* aldizkarietan ere ugari ar-
gitaratu zituen. Zehazki, *Oleri*n: 32 eta *Karmel*en: 24.

Balendinen jaiotzaren mendeurreneko idazlana haren ber-
tsorik gabe, bertsotan poto egitea bezala litzateke... Horregatik,
lantxo honi amaiera emateko, *Karmel* aldizkarian argitaratu zi-
tuen bi hauek aldatuko ditut hona; bata 50eko hamarkadakoa
eta bestea 80ko hamarkadakoa:

Alperra eta fina¹⁰

Lagun ez diran izakera bi
daukaguz emen munduan;
bata da fina, bestea alperra,
beti alkarraz autuan.
Egi aundijau euki dagigun
aztu bagarik goguan;
alperra ez dala txarto izango
fiñak dabixen lekuan.

Alperra beti atxaki billa
nundik lanai iges eingo;
ta fiña, harriz, bizkor lanera
nun ogia irabaziko,
janagaz baño bere lanagaz
gogoratzen da gchiago;

⁹ Luis Baraiazarra, *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* (71, 72 orr.)

¹⁰ *Karmel*-1952; 72. or.

alperra, barriz, mairako gertu
nok jaten emon balego.

Lege txiki bat jarriko neuke
guztion onuragarri;
lege au da, ba, janik ez emon
lanik gura ez dabenari;
era onetan hainbeste alper
ez genduke eingo ikusi,
eta danontzat izango geunke
naikua arto ta ogi.

Alperkeria dogu munduan
gose guztien sustraia;
lan egitetik yatorku, barriz,
zoriona ta ogia.
alde batera itxi dagigun
betiko alperkeria,
gura badogu alkar arteko
zoriona ta bakia.

Gernika erre zaneke¹¹

(Franco, Hitler, Mussolini)

Hitler:

Doixtarra naz jaiotzez,
bizitzaz doixtarra;
barruan beti daukat
gudarako garra.
Len galdu bagenduan
amalaiko gerra,
gaur armaz ondo nago,

¹¹ *Karmel-1985-2*, 101. or.

au ez da guzuita:
norbaitekin badaukat
probatu bearra.

Franco:

Ni naz gallegotxo
baina española;
badakizu Espainan
gerran neguala,
eta Euzkadi nire
kontra jagi dala.
Zure armak probatzeko
gogoa dozula,
or daukazu Gernika;
erre beriala.

Agirre:

Hitler etorri jakun
Francok agindurik,
Euzkadi ilgo zala ustez
Gernika errerik,
baina Gernika or dau
len baizen bizirik.
Franco, Hitler, Mussolini
lurrak truntsirik...
Bizi nai dauan erri bat
ez dago ilterik.

Luis Baraiazarra Txertudi